

IRAKASGAIA: GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)
ARTEKO GRADUA
4. MAILA (18 kreditu)

DESKRIPTOREA:

Gratu Amaierako Lanak (GRAL) ibilbide akademikoaren amaiera adierazten du, gradudunaren prestakuntza prozesuan. Nahitaezkoa eta sailen artekoa (18 ECTS kreditu) da; laugarren eta azken mailako bigarren lauhilekoan egiten da; eta, irakaskuntza lana orientatuta egongo da, ikasleak proiektu plastiko pertsonal bat egin dezan, arte adierazpenei eta ikaskuntzari lotutako ezein jakintza arlotan. Proiektu horren bidez, ikasleak graduko gaitasunetan ezarritako ezagutzak, ahalmenak eta trebetasunak egiaztatuko ditu.

Gratu Amaierako Lanean, arteko diziplinarteko ikasketak egiteko eskaintza akademikoari buruz ikasleak egindako interpretazio pertsonala agertuko da, eta bereziki sustatu eta balioetsiko dira haren gaitasuna arte ezagutza adierazteko eta proiektu jakin batean gauzatzeko. Ikasleak berak aukeratutako tutoreak proiektua gidatu eta aholkularitza lanak egingo ditu, beharrezkoa den jarraipen akademikoa bermatzeko eta finkatutako ikaskuntza helburuei modu egokian erantzuteko.

TESTUINGURUAN KOKATZEA:

Gratu Amaierako Lanak (GRAL) ikaslearen ikasketak eta prestakuntza osatzen ditu, gradudun izateari begira. Ikasturtearen irakaskuntza osatzeko, bigarren lauhilekoko minorrak eta nahitaezko irakasgaiak ematen dira: *"Sorkuntza Artistikoaren eta Profesionalizazioaren Prozesuak eta Metodologiak"* eta *"Eremu artistikoa, testuak eta prozesuak"*; bai eta lehen lauhilekoaren hautazko irakasgaiak (11) eta nahitaezkoak (1) ere. *"Komunikazioa Euskaraz: Arteak"*, *"Arte Interaktiboa eta Interfazeak"*, *"Instalazioak eta Soinu Espazioa"*, *Denboran Oinarritutako Arte Medioak*, *Erregistroa eta Praktika Artistiko Performatiboak eta Testuingurukoak*, *"Eskultura, Arkitektura eta Hiri Paisaia"*, *"Giroa, Ekintza eta Parte Hartzea"*, *"Arte Objektua"*, *"Geometria Aplikatua"*, *"Arlo Grafikoa Eremu Hedatuan"*, *"Testuinguruari Lotutako Pintura Praktikak"*, *"Pintura, Teknologiak eta Diziplinartekotasuna"*, eta *"Hezkuntza eta Bitartekaritza Artean"*.

GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK:

Gratu Amaierako Lana gradudunaren ibilbide akademikoaren azken ariketa da, eta lan horretan tituluaren prestakuntza prozesuei erantzun egokia eta pertsonala eman beharko die gradudunak. Prozesu horiek zeharkako gaitasunetan, mailako gaitasunetan eta gaitasun espezifikoetan daude jasota, eta Arteko Graduaren ikaskuntzaren emaitza pertsonal gisa zehazten dira.

Mailako gaitasunak (graduaren txostena):

4.M. 1.G *Autonomia tekniko nahikoa edukitzea, arte jarduera indibidual edo kolektibo bat garatzeko.* (Tituluaren gaitasunak: G002, G004, G005).

4.M. 2.G *Artea jakintza espezifikoa gisa ulertzea. Artisten pentsaera eta metodologia beren obren eta testuen bidez ezagutzea.* (Tituluaren gaitasunak: G001, G007).

4.M. 3.G *Arte esperientzia transmititzeko gaitasuna. Ezagutzak transmititzeko eta artearen bitartekari izateko eta pedagogia lana egiteko gai izatea, beharrezkoa den esparruetan (hezkuntza erakundeak, museoak, etab.).* (Tituluaren gaitasunak: G010).

4.M. 4.G *Artearen sistema funtzionatzeko mekanismoak eta eskakizunak ezagutzea, bere esparruan profesionalki txertatu ahal izateko. Egile eta jabetza intelektualeko eskubideen funtzionamendua eta arazoak ezagutzea.* (Tituluaren gaitasunak: G009).

4.M. 5.G *Jarduera artistikoan, gizartean ematen den gizabanako-talde erlazioaren alderdiak ezagutzea. Gizarteak artista garaikideari eska diezaiokeenari lotuta, nor bere gain hartzea sorkuntza prozesua eta sorkuntza bera. Konpromisoak hartzeko gaitasuna edukitzea.* (Tituluaren gaitasunak: G002, G008).

4.M. 6.G *Arte esperimentazio guztietan ematen den eta hori artelan bihurtzeko beharrezkoa den oinarrizko sinbolizazio eragiketa ezagutzeko eta egiteko gai izatea.* (Tituluaren gaitasunak: G003).

GRALaren gaitasun espezifikoak (Graduaren txostenetik):

1.GE: *Lan artistikoa aurkezteko moduak ezagutzea.*

2.GE: *Gradu Amaierako Lana esparru artistikoan eta profesionalean txertatzeko moduak ezagutzea.*

3.GE: *Egindako lanari buruzko dosierrak eta txostenak egiteko gaitasuna.*

4.GE: *Sorkuntza baliabideak proiektuen beharretara egokitzeko gaitasuna.*

5.GE: *Arte proiektu bat egiteko beharrezkoa den informazioa bilatzeko, aztertze eta txertatzeko gaitasuna.*

6.GE: *Analisi autokritikorako gaitasuna, arte proiektuaren testuinguruan.*

7.GE: *Egindako lana arte arazoan testuinguruan kokatzeko gaitasuna.*

8.GE: *Beste lan batzuen analisisan eta balioespenean parte hartzeko gaitasuna.*

9.GE: *Arte sorkuntzan konponbide pertsonalak emateko trebetasuna.*

Ikaskuntzaren emaitzak (Graduko txostenetik):

GRALak egiaztatu beharko du ikasleak gaitasunak (zeharkakoak eta espezifikoak) nahikotasunez eta egokitasunez garatu dituela, ikaskuntzaren hiru emaitzetan:

1. Zati praktikoa.

(Garatzen) DIZIPLINA EDO DIZIPLINARTEKO ARTE PROIEKTUA, ekoizpen esperimentalen oinarria, non helburu pertsonalak gauzatzen diren eta lan metodologia partikularrek mugatzen diren; ekoizpen esperimental indibidual edo kolektibo bat egiteko autonomia teknikoa erakusteko modu bat.

2. Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea.

(Garatzen) EKOIZPEN ESPERIMENTALAK ARTEAREN ESPARRUAN, zentzua emateko edo sinbolizatzeko oinarrizko eragiketak gauzatzen eta laburbiltzen dituztenak, teknika bakoitzerako beharrezkoak diren baliabideak erabiliz, hots: artearen prozesuak, prozedurak eta materialak, irudigintzan, margolaritzan, eskulturan, argazkilaritzan, ikus-entzunezkoetan eta gailu teknologikoen arloan. Horien bidez, agerian geratzen dira aurkikuntza pertsonalak, konponbide material objektiboak, eta jarduteko askotariko moduak irudia, esanahia eta sinbolizazioa sortzeko prozesuan eta garapen metodologikoan.

3. Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa.

(Garatzen) IDATZIZKO ETA AHOZKO ADIERAZPENARI ETA ULERMEN KRITIKOARI BURUZKO LANAK, artisten pentsaerak eta metodologiak aztertze, identifikatzeko, ulertze eta ezagutzeko beren obren eta testuen bidez, gertaera artistikoen bidez eta horiei dagokien gizarte testuinguruen bidez.

IRAKASKUNTZA METODOLOGIA:

Irakaskuntza metodologia bat etorriko da gaitasunen (espezifikoak eta tituluari lotutakoak) egiaztapen egokia lortzeko finkatutako helburuekin, eta gogoetarako, ekoizpenerako eta erabakiak hartzeko prozesu autonomoak sustatuko ditu ikasleengan.

Gratu Amaierako Lanak (GRAL), irakaskuntza erregularrik gabeko 18 kredituko irakasgai gisa, aurrez aurreko saioetarako eta zuzendariarekin egin beharreko tutoretzetarako 10 ordu ezartzen –Graduaren txostenean– ditu; nolahi ere, irakasleak lanaren jarraipenerako programa bat ezar dezake ikaslearekin batera, ikasketen gidaliburu honetan eskatutako ikasketak eta adierazitako helburuak bermatzeko.

Tutoretza prozesuan egindako jardueren koordinazioaren bidez bermatu egin behar da ikasleak erantzun egokia eta pertsonala ematen diela ikaskuntzaren hiru eskakizun edo emaitza nagusiei eta GRALaren gaitasun espezifikoetan adierazitako Gradu gaitasunen garapenari. Ikasgelaz kanpoko lanerako eta lan autonomoa egiteko 170 ordu ezarri dira (170 + 10 = 180 ordu).

ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANERAKO GAIA AUKERATZEA:

Gratu Amaierako Lanak (GRAL) Gradu irakaskuntza duen sail bateko irakasleek edo Gradu eskolak ematen dituzten irakasle atxikiek zuzenduko dituzte, eta zuzendari bat baino gehiago aukeratu daiteke. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean hura orientatzeaz eta ezarritako helburuak beteko direla bermatzeaz, baita jarraipena egin eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idazteaz ere. Era berean, ikasleak Gradu Amaierako Lana egiteko baliabideak edukitzeaz arduratuko da irakaslea, ikastegiaren posibilitate errealean arabera.

Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, gradu eskolak ematen dituen sail batekoa edo gradua ematen duen ikastegiari atxikitakoa. Irakasleak Gradu Amaierako Lan osoa edo haren zati bat praktiketako hitzarmen baten esparruan gauzatzen badu UPV/EHUtik kanpoko instituzio edo erakunde batean, Gradu Amaierako Lana unibertsitatetik kanpoko langileek zuzendu ahalko dute. Kasu horretan ere, ezinbestekoa izango da arestian adierazitako baldintzak beteko dituen zuzendarikide bat izatea.

Ikastegiko Batzarrak edo hark horretarako izendatzen duen batzordeak, sailekin eta idazkaritzarekin lankidetzan, Gradu Amaierako Lanari buruzko prozedura bat idatzi eta argitaratuko du, matrikulatzeko epea amaitu aurretik. Bertan azalduko du nola esleituko diren zuzendariak eta gaiak, bai eta lana zein hizkuntzatan egin eta defendatu ahal izango den ere.

EBALUAZIO SISTEMA:

Araudi orokorrean jasota dagoen moduan, ikasleak lana saio publiko batean defendatu ondoren, epaimahai batek Gradu Amaierako Lana (GRAL) ebaluatu eta kalifikatuko du. Epaimahaiak (hiru kidek osatutakoa) hautatzeko, kontuan hartuko dira hizkuntza irizpideak eta irakasleen afinitatea, proiektuaren planteamenduarekiko. Epaimahaiak sailek osatuko dituzte modu koordinatuan, Ikastegiarekin lankidetzaz.

Ebaluazioan, epaimahaiko kideek kontuan har dezakete tutoreak emandako txostena, eta kontuan hartu beharko dituzte modu haztatuan Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiteko eta defendatzeko berariaz eskatutako ikaskuntzaren eskakizunak eta emaitzak (3), gaitasunen garapen egokiaren egiaztapen akademikoa egiteari begira:

- 1. Zati praktikoa.** (Haztapen tarte honen barruan: % 70-40).
- 2. Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea.** (Haztapen tarte honen barruan: % 15-30).
- 3. Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa.** (Haztapen tarte honen barruan: % 15-30).

KALIFIKAZIO PROZESUA:

1. Epaimahaiak, GRALren defentsa egin aurretik, ikaskuntza emaitza bakoitzari azken kalifikazioan esleituko zaion balioa (%) ezarri, eta ezagutzera emango du. Balioa haztapen eskala honen arabera zehaztuko da (% 100ren gainean):

- 1.IE: Zati praktikoa:** amaierako notaren % 40 eta % 70 artean.
- 2.IE: Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa:** amaierako notaren % 15 eta % 30 artean.
- 3.IE: Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea:** amaierako notaren % 15 eta % 30 artean.

2. Epaimahaiak, lana eta haren defentsa publikoa ikusi ondoren, Otik 10era kalifikatuko ditu gaitasun espezifiko guztiak, azken kalifikazio bakarra emanez.

3. Ikaskuntzaren emaitza bakoitzari (1.IE, 2. IE eta 3.IE) lotutako gaitasun espezifikoaren kalifikazio partzial guztien batuketak 3 kalifikazio partzial emango ditu; kalifikazio partzial horietako bakoitza haztatu egingo da, epaimahaiak alde aurretik zehaztutako ehunekoaren arabera, eta horren batuketak azken kalifikazio bat emango du, Otik 10erako eskalan eta dezimal batez adieraziko dena. Kalifikazio horri dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio:

0 - 4,9:	Gutxiegi (G).
5,0 - 6,9:	Nahiko (N).
7,0 - 8,9:	Oso ongi (OO).
9,0 - 10:	Bikain (B).

Indarreko ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, "ohorezko matrikula" eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei. Hala ere, ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturtean gai horretan matrikulatutako ikasleen % 5 baino handiagoa.

Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko ebaluazio araudian aurreikusitakoari jarraiki egingo dira; dena den, kasu honetan epaimahai bat dagoenez, ebaluazioaren lehen berrikuspena epaimahaiak berak egingo du. Ondoren, Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Unibertsitateko errektoreari.

ADIBIDEA: (Kalifikazio prozesu baten simulazioa)

Epaimahaiak azken kalifikazioan ikaskuntza emaitza bakoitzari aurretik esleitutako ehuneko balioa ematen du:

Ikaskuntzaren emaitzak	%
1.IE: Zati praktikoa: amaierako notaren % 40 eta % 70 artean.	% 70
2.IE: Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa: amaierako notaren % 15 eta % 30 artean.	% 15
3.IE: Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea: amaierako notaren % 15 eta % 30 artean.	% 15

Epaimahaiak GRALari lotutako 9 gaitasun espezifikoak kalifikatzen ditu:

1.GE: Lan artistikoa aurkezteko moduak ezagutzea.	6
2.GE: Gradu Amaierako lana esparru artistikoan eta profesionalean txertatzeko moduak ezagutzea.	7
3.GE: Egindako lanari buruzko dosierrak eta txostenak egiteko gaitasuna.	3
4.GE: Sorkuntza baliabideak proiektuen beharretara egokitzeko gai izatea.	5

5.GE: Arte proiektu bat egiteko beharrezkoa den informazioa bilatzeko, aztertzeko eta txertatzeko gaitasuna.	8
6.GE: Análisi autokritikorako gaitasuna, arte proiektuaren testuinguruan.	9
7.GE: Egindako lana arte arazoan testuinguruan kokatzeko gaitasuna.	2
8.GE: Beste lan batzuen analisisan eta balioespenean parte hartzeko gaitasuna.	5
9.GE: Arte sorkuntzan konponbide pertsonalak emateko trebetasuna.	5

Epaimahaiak GRALeko gaitasun espezifikoaren balio haztatua ezartzen du, GRALeko hiru (3) ikaskuntza emaitzekiko.

	Gaitasun bakoitzaren kalifikazioa	IE bakoitzaren haztapen ehunekoa			
1. IE: Zati praktikoa: GAITASUNAK: 4. + 5. + 7. + 9.=	4. GE: 5	% 70	3'5		
	5. GE: 8				
	7. GE: 2				
	9. GE: 5				
	20 : 4 = 5	x 0'7			
2.IE: Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa: GAITASUNAK: 2. + 3. + 8. =	2. GE: 7	% 15	0'75		
	3. GE: 3				
	8. GE: 5				
	15 : 3 = 5			x 0'15	
3.IE: Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea: GAITASUNAK: 1. + 6. =	1. GE: 6	% 15	1'125		
	6. GE: 9				
	15 : 2 = 7'5			x 0'15	
	AZKEN KALIFIKAZIOA				5,3
			Nahikoa (N)		

PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA:

GRALa aurkezteko eta defendatzeko ekitaldi publikoan, ikasleak bere obra edo proiektu pertsonala jarriko du ikastegiak egokitutako gunean eta egunean, epaimahaiko kideek bertatik bertara ikus dezaten. Arte performatiboaren kasuan, epaimahaikideekin adostu beharko da obra egiteko ordua eta lekua. Gainera, ikasleak ahozko defentsa egiteko 15 minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, edukiak, metodologia, eta lana gauzatu arteko prozesua azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eskari, iruzkin edo iradokizunei erantzun beharko die.

Ikaslearen obra aurrez aurre ikusi ondoren eta zuzendariaren txostena irakurritakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du GRALaren gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko txostenean ezarritakoari jarraiki. GRALaren behin-behineko kalifikazioa argitaratuko da, defentsa amaitu eta ondorengo 24 ordu baino lehen, gehienez.



Ikasleak lana gainditzen ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.